



Europar Batasuna
Unión Europea

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du konpromiso irmoa duela estandarrik zorrotzenekin betetzeko arau juridiko, etiko eta moralak, eta bat egiten duela zuzentasun, objektibotasun eta zintzotasun printzipio hertsienekin. Hori horrela, Foru Aldundiarekin harremanik duen eragile orok hautemango du edozer eratako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakoa dela foru erakundearen jarduna. Zuzendaritza taldeko kide guztiek onartzen eta partekatzen dute konpromiso hori.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten enplegatu publikoen eginbeharrak dira, besteak beste, interes orokorrak zaintzea «Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua», halaxe zehazten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 52. artikuluan.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak badu Zuzentasun Sistema bat, zeinaren xedea baita etika publikoa eta eredugarritasuna sendotzea nortasun ezaugarri gisa, eta, haren bidez, Gipuzkoa eredugarri bat eraikitzea. Gipuzkoako Zuzentasun Sistema hori hainbat helburu, printzipio, prozedura eta berme instituzioren bidez egituratzen da, bai eta gardentasunerako, kontuak emateko eta ebaluazioa egiteko mekanismoen bidez ere. Horien guztien helburua da zuzentasun politika finkatzea eta azpiegitura etikoa eraikitzea, dela foru administrazio osoan, dela haren foru sektore publikoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Sistemaren helburua da zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea funtzio publikoak gauzatzen esku hartzen duten arduradun eta enplegatu publiko guztien artean, bai eta foru zerbitzu publikoak hornitzen parte hartzen duten erakunde edo pertsonen artean ere. Hala, Zuzentasun Sistemak modu eraginkorrean artikulatuko du azpiegitura etikoa foru erakundearen. Horregatik, hainbat jokabide kode izateaz gainera, baditu erakundearen osotasuna prebenitzeko eta zabalitzeko sistemak, bai eta bermea emateko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko tresnak ere.

Laburbilduz, Gipuzkoako Foru Aldundiak zero tolerantziaren aldeko politika du iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta, ildo horretan, kontrol sistema sendo bat ezarri du, bereziki diseinatua iruzur ekintzak ahal den neurrian prebenitzeko eta detektatzeko eta, gertatuz gero, haien inpaktua zuzentzeko.